

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hizkuntza Laguntzaileak

GIDA



EUSKAL HERRIA

HIZKUNTZA LAGUNTZAILEENTZAKO GIDA

Gida hau, Euskal Autonomia Erkidegoan izendatu diren Hizkuntza Laguntzaileentzat da eta honen helburua, dagokion ikasturtean, haien eginbeharra gauzatzeko behar duten informazioa ematea da.

AURKIBIDEA:

I. SARRERA. Hizkuntza-Laguntzaile gisa egin beharreko jardueraren antolaketa pedagogikoa3

- A) Hizkuntza-Laguntzailearen Rola
- B) Klaseak behatzea
- C) Ikastetxean duen tokia
- D) Harrera-ikastetxeak
- E) Zein kupokoa zara? Kupoen gaineko informazioa
- F) Hizkuntzako Klaserako Ideia Batzuk
- G) Hezkuntza Sailaren webgunea: Hizkuntza-laguntzaileentzako SITE-a

II. PROGRAMAREN HASIERAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK.....5

A. Espainiara iritsi aurreko prestaketak

B. Espainian egin beharreko izapideak

- a) Ostatua eta erroldatzea
- b) Hileroko Ordainketa
- c) Nola zabaldu kontu korrentea bankuan
- d) Atzerritarraren identifikazio – zenbakia (AIZ) eta Erkidegoko egoiliarraren txartela.
- e) Osasun Laguntza

III. HIZKUNTZA-LAGUNTZAILEAREN EGINKIZUNA.....10

- 1) Ordutegia eta urteko egutegia
- 2) Hizkuntza Laguntzailearen funtzioak
- 3) Hutsegiteak eta bestelako goraheherak
- 4) Uko egiteak eta lanpostu-uzteak
- 5) Ikasturtearen Azken Balorapena
 - a) Ikastetxeak bete behar duena
 - b) Hizkuntza Laguntzaileak bete behar duena
- 6) Berritzeak
- 7) Programaren hasieran egin beharreko izapideen laburpena
- 8) Ohiko galderak
- 9) Helbide erabilgarriak

I. SARRERA. Hizkuntza-Laguntzaile gisa egin beharreko jardueraren antolaketa pedagogikoa.

A) Hizkuntza-Laguntzailearen Rola.

Hizkuntza kultur identitatearen berezko elementua da. Beste hizkuntza batzuk ezagutzeak ezagupenak, sentimenduak eta iritziak partekatzen ikastea dakar, hizkuntzari eta gizarteari begira norberarenak ez diren arauak nagusi diren egoeretan.

Ikastetxe batean atzerriko elkarrizketa-laguntzailea egotea aparteko aukera da ikasleentzat, ahozkotasuna lantzeko aukeraz gain, bere herriko kultura eta bizimodua modu naturalean ezagutzeko aukera zabaltzen baitu.

Inportantea da elkarrizketa-laguntzaileak bere hizkuntzan hitz egin eta hitz egin behar dela azpimarratzea eta ezinbestekoa denean erabili behar du bakarrik ikaslearen ama hizkuntza, ez besterik.

B) Klaseak behatzea.

Komenigarria da Hizkuntza Laguntzailea ikasturtearen hasieran behatzaile gisa joatea hizkuntzako klaseetara. Horrek ematen dio, lehenik eta behin, gela bakoitzean hizkuntza zein mailatan ezagutzen den jakiteko aukera; bigarrenik, irakasleen asmoa ezagutuko ditu, ikasleek lortu beharreko helburuei begira, eta hirugarrenik, irakaskuntza-metodologia, akatsak zuzentzeko sistemak eta hitz-jarioaren eta perfekzioaren arteko oreka ezagutuko ditu.

C) Ikastetxean duen tokia.

Inportantea da ikasleekin harreman hurbil eta adiskidetsua hasieratik izatea, errespetuzkoa ere izan behar duen arren; halaber, ohituretara egokitzea eta ikastetxearen bizitzan integratzeak badu ere bere garrantzia, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartuz. Honek emango du herrialdeko hizkuntzarekin harreman hobea izatek eta ikastetxe, talde edo gizabanakoen artean trukeak eta korrespondentzia sustatzeko aukera.

D) Harrera-ikastetxeak.

Hizkuntza laguntzaileek ondorengo ikastetxeetan dute destinoa:

- Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak.
- Hizkuntza Eskola Ofizialak

Lehen Hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da; sei eta hamabi urte arteko ikasleak dituzte. **Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeek**, normalean, 12-18 urte arteko ikasleak dituzte. Ia Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiek goizeko eta arratsaldeko txandetan ematen dituzte klaseak, institutu batzuek goizez baino ez dute ematen klaserik. **Hizkuntza Eskola Ofizialek** 16 urtetik gorako ikasleak dituzte eta goiz eta arratsaldez ematen dituzte klaseak.

E) Zein kupokoa zara? Kupoen gaineko informazioa.

Hizkuntza laguntzaileak bi taldetan banatu ahal ditugu, hileroko laguntza ordaintzen duen erakundearen arabera:

- **Ministerio kupokoak:** Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministeritzatik jasotzen dute hileroko diru laguntza.
- **Erkidegoko kupokoak:** Ikastetxea kokatuta dagoen Autonomia Erkidegotik jasotzen dutenak.

Ikastetxera joan aurrero **Izendapen Eskutitzean** agertuko zaio zehaztuta hizkuntza laguntzaileari zein den hileroko diru laguntza ordainduko duena: Ministeritza edota Erkidegoa.

F) Hizkuntzako Klaserako Ideia Batzuk.

Ikasleek ez dute behar adina menperatzen hizkuntza, hau da kontuan hartu beharreko jardueraren funtsezko alderdi bat eta, horregatik, ondorengo gomendioak ematen dira:

- Abiadura moteltzea eta hizkera ahalik eta gehien sinplifikatzea.
- Ulertu dela segurtatzeko galderak egitea.
- Gauzak ondo ulertu ez direla ikusiz gero, ideia era desberdinetan errepikatzea.
- Ikasleek ulertzeko baliabide mota guztiak erabiltzea: keinuak, mimika, marrazkiak, etab...
- Itzulpena jotzea, baina gehiegi ez, gainontzeko guztiak huts eginez gero.

Egiazko materialak erabiltzea lehen mailako baliabide metodologikoa da. Alde batetik, indartzen da hitz egiteko motibazioa eta gehiago hurbiltzen dituzte ikasleengana bestela akademikora murrizten diren kultura eta eguneroko hizkuntza. Bestetik, ematen dute egiazkoagoak diren jarduera batzuk egiteko aukera.

Haren jarduera egiten laguntzeko materialak erabiltzea proposatzen da:

- Haren herriko/hiriko kale-mapak.
- Tren eta autobusen ordutegiak, eskolak, dendak, etab...
- Irrati eta telebistako programak.
- Kartelak, abisuak, gonbidapenak, iragarpenak, inprimaki ofizialak.
- Eguraldiari buruzko informazioak, egunkarietako orriak, nerabeentzako aldizkariak, komikien tirak, etab...
- Soinuak eta egiazko elkarrizketak, abestiak, toki mailako pertsonaiak eta azentuak, etab.
- Turismo-liburuxkak, diapositibak, postalak, erabilitako zigilu eta billeteak, posta- inprimakiak, etab...
- Errezetak, erosketa-zerrendak, edarien zerrendak, menuak, prezioen zerrendak, etab...

G) Hezkuntza Sailaren webgunea: Hizkuntza-laguntzaileentzako SITE-a

www.euskadi.eus/hizlagun/

Hezkuntza saileko web gune honetan **SITE** gune honetan ariketak izango dituzu klasetan erabiltzeko eredu moduan. Ariketa hauek aurreko urteetan programan parte hartu duten hizkuntza laguntzaileek sortuak dira hal dituzu.



II. PROGRAMAREN HASIERAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

A. Espainiara iritsi aurreko prestaketak

Elkarrizketa-Laguntzaile gisa zure eskaera onartu ondoren, izendapena jasoko du. **Izendapena Espainian Hizkuntza-Laguntzaile izendatzeko dokumentu ofiziala da**, eta eraman egin behar da oinarritzko izapideak egin ahal izateko, hala nola bisa eskatzea, bankuan kontu bat irekitzea edo alokairu-kontratu bat kudeatzea.

Behin izendapena jasota, Laguntzaileak destinoko zentroarekin edo/eta harremanetarako pertsonarekin komunikatu behar du.

Gogoratu, EB-eko herritarra ez bazara, beharrezkoa dela **bisa eskatzea**. Bisei buruzko informazio guztia Hezkuntza Saileko web orrian edo Elkarrizketa-Laguntzaile gisa hautatzeaz arduratzen den erakundearen dago.

Elkarrizketa-laguntzaile gisa etorri ahal izateko, **zigor-aurrekariaren ziurtagiria** beharko du. Uztailaren 28ko 26/2015 Legean ezarritakoa betez, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarriaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatu zuena, Prozedura Zibilararen Legea eta Kode Zibila partzialki aldatzen dituenen, 13 artikuluar 5. atal bat gehitzen diona, hizkuntza laguntzaileak ondoko hau Espainiara ekarri behar izango du eta lehen egunean heziketa-zentroan aurkeztu: Ziurtagiri negatiboa, sexu delitugileen erregistroak edo bere herrialdeko zigor erregistroak igorritakoa, sexu-askatasun eta ukigabetasunaren kontrako delituren batengatik epai irmo baten bidez kondenatua ez izanarena. Mesedez, jarri harremanetan hautatu zaituzten hezkuntza-agintaritzekin, beharrezko ziurtagiri mota egiaztatzeko.

B. Espainian egin beharreko izapideak

a) Ostatua eta erroldatzea

Ostatuari dagokionez, destinoko ikastetxearekin harremanetan jartzea gomendatzen da, ostatua ahalik eta baldintzarik onenetan lortzeko laguntza eman diezaioten. Prentsa espezializatua, bertako egunkariak, iragarki-eta edo beste edozein antzeko sistema ostatu egokia lortzeko lagungarri izan daiteke. Halaber, herrialdera iritsi eta lehen 3 egunetan hizkuntza laguntzaileari ostatua emateko gomendioa ematen zaie ikastetxeei.

Lagungarria izan ahal da baita ere aurreko ikasturteetako laguntzaileekin harremanetan jartzea.

Jarraian, pisu-alokairuan aurkitzeko web orri batzuk aurkezten ditugu:

www.idealista.com

www.fotocasa.es

www.enalquiler.com

www.segundamano.es

www.milanuncios.com

www.easypiso.com

Behin etxean kokatuta, Udalera joan beharko du **enpadronatzera**. Horri buruzko informazioa bizi deneko Udalaren web gunean izan du eskuragarri Hizkuntza laguntzaileak

b) Hileroko Ordainketa

800 eurokoa da Hizkuntza Laguntzaileentzat finkatu den hileroko ordainketa. Diru kopuru honetan, ez da inolako kenketarik egingo. Ordainketa **Banku transfrentzia bitartez egingo da hilabetearen bukaeran**. Dirua jaso ahal izateko dokumentazioa lehen bait lehen eduki behar du prest Hizkuntza laguntzaileak.

Ordainketak jasotzeko Hizkuntza Laguntzaileak kontu-korriente bat ireki beharko du Euskal Herriko Banko edo Kutxa batean. **Kontu korriente hau bere AIZ zenbakiarekin ireki beharko du.**

Banku-kontu korrientea zabaldu ondoren, «[Hirugarren Alta emateko Fitxa](#)» bete beharkoda. Fitxa Hezkuntza Saitetik bidaltzen zaio Hizkuntza Laguntzaileari. Dokumentu honek Hizkuntza Laguntzailearen sinadura eta bankuaren zigilua eduki behar ditu.

Fitxa bete ondoren, kontua zabaldu deneko datu pertsonalekin batera, **ahal bada urriaren 15a baino lehenengo** helbide honetara bidali behar da: hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus

Hasierako hilabeteetan ager daitezkeen bat-bateko gastuei aurre egiteko, egokia da diru kopuru bat eskura izatea.

c) Nola zabaldu kontu korrientea bankuan

Banku guztiek ez dute dokumentazio bera eskatzen kontua irekitzeko. Gomendagarria da honako dokumentu hauek eramatea:

1. **Atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ) jasotzen dueneko dokumentu ofiziala).**
2. **Izendapena Hizkuntza laguntzaile izatekoa.**
3. Bankura edota Kutxara joan aurretik Hirugarrenaren Alta izeneko eredu normalizatuainprimatu eta prest eduki behar da kontua zabalteko egunean bankura eramateko. Dokumentuaren kopia hemen sakatuta lor daiteke: [“Hirugarrenaren Alta” izeneko eredu normalizatua](#)

Zure banku-kontua irekitzean, garrantzitsua da zuk hileroko laguntza hezkuntza-programaren barruan jasoko duzula zehaztea, komisorik ordaindu behar ez izateko. Kontuan hartu behar duzu banku gehienek komisioak kobratzen dituztela kontuak mantentzeagatik eta noizbehinka blokeatu ditzaketela mugimendurik ez badago.

Garrantzitsua: askotan banku-kontuko datuak egiaztatu behar dira lehen hilabeteetan, gorabeherak saihesteko.

AIZ-rik gabeko banku-kontu bat irekitzen bada, lortzen duenean, berehala jakinarazi behar diozu bankuari, EZ badu EGITEN, bankuak kontua blokeatu baitezake. AIZ lortu ondoren, automatikoki alda daiteke kontuaren zenbakia. Zure bankuarekin kontsultatu behar duzu aukera hori. Hala balitz, adierazi bankuko datu berriak Euskadiko Programaren arduradunei.

d) Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta Erkidegoko egoiliarren txartela.

Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) GUZTIZ EZINBESTEKO DA HILEROKO ORDAINKETA JASOTZEKO. Europako Erkidegokoak ez diren Hizkuntza Laguntzaileak **AIZ (NIE) jasoko dute bere bisetan** eta horrek banku kontua irekitzea errazten du, baina TIE eskatu beharko dute Espainiara heltzen direnean.

Europako herrietatik datozenak bere herriko kontsulatuetan AIZ (NIE)-ren eskaera Espainia etorri baino lehen egin dezakete, horrela iristerakoan izango dute eta banku- izapideak berandutze gutxiagorekin egin ahal izango dituzte:

[Atzerritarren Identifikazio Zenbakia \(AIZ\)](#)

Hizkuntza Laguntzaileak AIZ (NIE)-a edukiz egongo den lekura iristerakoan egin behar duen lehen kudeaketa hauxe izango da: **Europako Erkidegokoa ez bada** Atzerritar Identifikazio Txartela (TIE)-a eskatu eta **Europako Herrietakoa badira** Erkidegoko Ergoiliarren Txartela eskatu.

Agiri hauek aldi berean eskatu behar diren arren, AIZ, kobratzeko ezinbestekoa denez, 15 bat egunetan lortzen da; aitzitik, aldi luzeagoa behar da besteak tramitzeko.

Dokumentu horiek guztiak egoitza jarri nahi duten edo jarduera egingo duten tokiko polizia-etxean edo atzerritarren bulegoan lortuko dira.

Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako Hizkuntza laguntzaileak: “Certificado de Registro de Ciudadano/a de la Unión Europea” Ziurtagiria lortzea

Herrira iristean, lehenengo kudeaketa [Erkidegoko Ergoiliarraren Txartela](#) eskatzea izan behar da.

Hizkuntza Laguntzaileak bizi den probintziako atzerritarren bulegora edo polizia-etxera joan beharko du **Atzerritarren Erregistro** Nagusian inskizioa eskatzeko.

EBko Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatzeko eskaera

EX18 Eredua

The image shows two parts of the process. On the left is the 'EX-18' application form, titled 'Solicitud de inscripción en el Registro Central de Extranjeros, Residencia Ciudadanos de la UE (Real Decreto 240/2007)'. It includes fields for 'DATOS DEL SOLICITANTE' (applicant data) such as passport number, name, date of birth, and nationality, and 'SITUACIÓN EN ESPAÑA' (situation in Spain) with options like 'Residencia Temporal' and 'Estudiante con recursos suficientes y seguro de enfermedad'. On the right is the 'CERTIFICADO DE REGISTRO DE CIUDANO DE LA UNIÓN' (Certificate of Registration of Union Citizen), which is a green document with the Spanish coat of arms and fields for 'D. Nº', 'Nombre', 'Nacionalidad', 'Domicilio', and 'Residente concurrido en España desde'.

Ziurtagiri hori eskatzeko, dagokion tasa ordaindu behar da

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- [EX-18 Eredua](#), dokumentoen bina ale, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Nortasun-agiri balioduna eta indarrean dagoena
- Hizkuntza Laguntzaile IZENDAPENA.
- Dagokion [tasa](#) ordaindu izanaren egiaztagiria.

Eskabidea aurkeztu ondoren, erregistro-ziurtagiri bat jasoko da, honako datu hauekin: izena, nazionalitatea, helbidea, erregistro-data eta **Atzerritarren Nortasun Zenbakia (AIZ)**. **Ziurtagiri hori beharrezkoa da Espainian kontu bat irekitzeko eta hileko laguntza jasotzeko.**

Europar Batasunekoak ez diren Hizkuntza Laguntzaileak: Atzerritar Identifikazio Txartela (TIE) lortzea

Helmugako herrira iristean, Hizkuntza Laguntzaileak [Atzerritar Identifikazio Txartela \(TIE\)](#) eskatu behar du dagokion atzerritartasun-bulegoan edo polizia-etxean Txartel horretan Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ) agertzen da.

[TIE](#)-k egiaztatzen du **atzerritarrek sei hilabetetik gorako bizileku edo egonaldi baimena** lortu dutela Espainian.

[TIE](#) eskatzeko, dagokion [tasa](#) ordaindu behar da, eta dokumentu hauek aurkeztu, lehen aldiz eskatzen baduzu.

Atzerritarren Nortasun Txartela (ANT)

EX17 Eredua

Diagrama EX17 Eredua erakusten duena, atzerritarren nortasun txartela (TIE) eskatzeko formularioa eta txartelaren irudia. Formularioa honako elementuak ditu:

- GOBIERNO DE ESPAÑA** (Espainiako Gobernua) logoa.
- EX-17** kodea.
- Solicitud de Tarjeta de Identidad de Extranjero (TIE)** (LO 4/2000 y RD 557/2011).
- Espacios para sellos de registro** (registroko estekak).
- SITUACIÓN EN ESPAÑA:** "Estancia por estudios, investigación-formación, intercambio, prácticas o voluntariado".
- 1) DATOS DEL EXTRANJERO/A** (atzerrikoaren datuak).

Txartelaren irudia honako elementuak ditu:

- PERMISO DE RESIDENCIA** (F 173450/18).
- ESTANCIA POR ESTUDIOS**.
- TARJETA DE IDENTIDAD DE EXTRANJERO (TIE)**.
- NÚMERO DE IDENTIDAD DE EXTRANJERO (NIE)**.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Eskabide-orria ([EX-17](#)), dokumentoen bina ale, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Pasaportearen edo bidaia-tituluaren originala eta fotokopia; sarrera zigiluarekin, zeinuarekin edo mugako postuan egindako kontrol-markarekin.
- Duela gutxiko hiru argazki, koloretan, hondo zuriarekin, karnetaren tamainarekin (4x3 cm).
- Bisaren jatorrizkoa eta fotokopia, hala badagokio.
- Hizkuntza Laguntzaile IZENDAPENA.
- Dagokion [tasa](#) ordaindu izanaren egiaztagiria.

Bisatua AIZ agertzen da, baina Espainiara iristean nahitaezkoa da Atzerritarren Identitate Txartelaren (AIT) eskaera izapidetzea, egonaldia sei hilabetetik gorakoa izango baita.

Programan berriro parte hartzen dutenek, Europako Erkidegoko herrialdeetako herritarrak ez badira, beren AITaren (ATZERRITARRAK IDENTIFIKATZEKO TXARTELA) IRAUPEN LABURREKO EGONALDIA LUZATZEA eskatu beharko dute.

AIT dokumentua (Atzerritarren Identifikazio Txartela) berritzea eskatzeko informazio zehatza hemen aurkituko du: "[Prorroga de Estancia por Estudios](#)".

Erkidegoko Egoiliarraren Txartela eskatzeko eredia (**Europako Hiritarrentzak**): [Eredua EX18](#).

Europako Erkidegokoak ez diren Hizkuntza Laguntzaileak (Estatu Batuak, Kanada, Australia, Zeelanda Berria, ...) Ikasketa-bisa behar dute eta **Atzerritar Identifikazio Txartela (TIE)**-a eskatuko dute. Eredua: [Eskaera EX17](#)

Erresuma Batuko Hizkuntza Laguntzaileek kontuan hartu behar dute Erresuma Batua erretiratzeko akordioa. Eskaera: [Eskaera EX17 edo dagokiona](#).

Programan **Errenobazioa egingo dutenak eta Europako Erkidegoak ez direnak** eskatuko dute Atzerritar Identifikazio Txartela TIE-ren errenobazioa. Eskabide eredia: [Eskaera EX00](#).

Informazio gehiagorako konsultatu: [Atzerritartasun-Izapideak](#)

e) Osasun Laguntza

Hizkuntza Laguntzaile guztiek izango dute gure herrialdean dauden aldi osasun- laguntza edukitzeko eskubidea.

Osasun-laguntza ez da berdina Europar Batasuneko herritarrentzat eta Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik datozenentzat (Europako erkidegoz kanpokoak).

- **Europako Osasun Txartela eskura duten laguntzaileei emandako osasun-laguntza (Europako erkidegoko herritarrak)**

Europar Batasuneko herritarrek Europako Osasun Txartelarekin etorri beharko dute; jatorrizko herrialdean eskatuko dute txartela. **Europako Osasun Txartela** indarrean duten pertsonak, destinoa duten herrian erroldatu beharko dira. Dokumentu horiekin bizilekuaren arabera dagokien osasun-zentrora joango dira eta medikua esleituko zaie. Horrela, eskura izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-laguntza publikoa (Osakidetza)



- **Beren herrialdeetan Europako Osasun Txartela eskuratzetik EZ daukaten laguntzaileei aseguru-etxe batek emandako osasun-laguntza:**

Europar Batasunetik kanpokoek eta Europar Batasuneko herrialdeetakoak izan arren Europako Osasun Txartela eskura ez daukatenean, aseguru-etxe batekin kontratatutako **Bidaiako Laguntza-Aseguru Poliza bat** izango dute, mintzapraktikakolaguntzaile gisa dauden denbora-tarte osorako (urriaren 1etik maiatzaren 31ra arte). Aseguru-etxeak emandako jarraibideak jarraitu beharko dituzte laguntzaileek. Dagozkien egiaztagiria eta harremanetarako telefonoak ere emango zaizkie.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko mintzapraktikako laguntzaile guztiek, Europako erkidegokoek zein erkidegoz kanpokoek, **istripuen eta erantzukizun zibilekopoliza** izango dute, dagokien ikastetxean jarduten duten ordutegiaren barruan babestukodituena. **Bidaiako Laguntza-Aseguruaren poliza** hori ikasturte hasieran igorriko zaie mintzapraktikako laguntzaileei.

III. HIZKUNTZA-LAGUNTZAILEAREN EGINKIZUNA

Hizkuntza-Laguntzaileak bere jatorrizko herrialdeko «**kultura-enbaxadore**» gisa jarduten du, eta, beraz, jarrera horrek zenbait erantzukizun dakartza bere lankidetzaren emango duen zentroarekiko. Oso garrantzitsua da bere portaera onak arrastoa uztea bai irakasleengan bai ikasleengan. Elkarrizketa-laguntzaileen trukeek kultura-helburua dutenez, **ez da inolako lan-harremanik ezartzen**, hau da, **laguntzaileak ez du Gizarte Segurantzaren kotizatzen**.

1) Ordutegia eta urteko egutegia

Hizkuntza Laguntzaileak **gehienez asteen 14 ordu asteen** beteko ditu, izendapenean adierazitakoaren arabera eta hiruzpalau egunetan, esleitu zaion/zaizkion ikastetxean/ikastetxeetan. Ikastetxera sartu ondoren, oso garrantzitsua da lehen unetik laguntzailea ikastetxeko hezkuntza-taldeak ondo hartzen duela sentitzea.

Hizkuntza Laguntzaileak irakasle tutore baten laguntza izango du eta honek emango dio programazioari, helburuei eta kurtso bakoitzean eskatzen diren gutxienezkoei buruzko informazioa. Halaber, departamentuari esleitutako espazioak, instalazioak, materialak eta hornikuntza erabiltzeari buruzko informazioa ere emango dio. Azkenik, bere gain hartuko du arloko gainontzeko irakasleek hizkuntza-laguntzeari ematen dizkieten jarduerak ikuskatzearen ardura.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak bere gain hartuko du laguntzaileen ordutegia egitearen eta betetzen dela kontrolatzearen ardura. Hizkuntza Laguntzaileak, klasera huts eginez gero, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendariari edo ikasketa-buruari. Halaber, ikastetxeko zuzendaritzak Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari helaraziko dio hizkuntza laguntzaileak justifikaziorik gabe egiten duen edozein hutsegite edo atzerapen.

Hizkuntza Laguntzaileek Programak irauten duen zortzi hilabeteetan, urritik maiatza arte garatuko dituzte beren jarduerak.

2) Hizkuntza Laguntzailearen funtzioak

Hizkuntza Laguntzaileak **ezin izango du bakarrik irakatsi** eta irakasle titularrarekin batera jardun beharko du. Hizkuntza Laguntzaileak ez du ikasleen irantzunkizunik izango. Talde bitan edota gehiagotan banatzen denean gela, irakasle titularra dagoen gelan bertan edota hurbil eta komunikatuta dagoen beste gela batean egon beharko du.

Hizkuntza Laguntzaileak irakasle titularrari emango dio laguntza eta haren funtzio espezifikoak ikasleen ahozko trebetasunak indartzeko bideratuko dira.

Hizkuntza-laguntzaileak eskolan orientatuko duen laguntza (ostatua bilatzea, AIZ izapidetzea) eskainiko dion irakasle-tutore bat izan behar du. Tutore hori izango da erreferentziako lehen pertsona gorabeheren kasuan.

Hizkuntza Laguntzaileak, ez dagozkion funtzio eta atazak agintzen bazaizkio, premiaz jakinarazi beharko dio Tutoreari, Sailaren Arduradunari edota Zuzendariari. Ikuskaritza Zerbitzuak ikastetxeekin batera jardun ahal izango du eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzarekin harremanetan egotea.

Hizkuntza-Laguntzaileak honako zeregin hauek bete ahal izango ditu irakasle titularraren koordinazio eta ikuskaritzapean:

- Elkarrizketa-praktika espezifikoak.
- Bere herrialdeko kulturaren irakaskuntza.
- Ikasleen ikaskuntza-prozesuan laguntzeko materialak sortzea, irakasleen jarraibideei jarraituz.
- Grabazioak beren hizkuntzan erregistratzea, hizkuntza-irakasleek xede-hizkuntzako natibo baten hizkeraren adibide gisa erabil ditzaten.
- Ikastetxeko irakasleen prestakuntzan laguntzea, betiere haien ordutegiaren barruan prest badaude.
- Antzeko beste zeregin batzuk

Hizkuntza Laguntzaileak, nahi izanez gero, eskolaz kanpoko jarduera desberdinetan parte hartu ahal izango du: kultur eta kirol jarduerak, ikasketa-bidaia, eskola-trukeak...etab. Jarduera horiek Hizkuntza Laguntzailearentzat oso onuragarri izan daitezkeela kontuan hartuta, parte hartzeko gomendioa ematen zaio.

Ondorengo zereginak eta jarduerak **EZ** dira hizkuntza laguntzailearen eskuduntzetan sartzen:

- Ikasle taldeari bakarrik irakasten egotea, titularraren ordeza.
- Departamentuan sartzen diren irakaskuntzen programazio didaktikoa edo ikasturtearen bukaerako memoria idaztea.
- Azterketak, frogak, kontrolak, idazlanak edo antzeko ariketak prestatu edo zuzentzea.
- Ikasleen kalifikazioa.
- Hizkuntza Laguntzailea ez da inola ere ikasleen segurtasunaren erantzule. Talde txikietan banaketak edo saioak badaude, gela berean edo irakaslea dagoen gela nagusiarekin komunikatutako gela batean egin behar dira.
- Hizkuntza Laguntzaileak ez die bakarrik aurre egin behar ikasleen portaera eta diziiplina-arazoei; irakaslearengana jo behar du beti egoera horiek konpontzeko.

3) Hutsegiteak eta bestelako goraheherak

Edozein hutsegite dagoenean ikasteko zuzendaritzari azaldu beharko dizkio arrazoiak Hizkuntza Laguntzaileak eta justifikazioa aurkeztu lehen baitlehen. Hutsegia zuzentzen ez badira, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Sailari emango dio horren berri, ordainketatik gutxitzeko zuritu gabeko hutsegiteak.

Gaixotasunagatik huts egiten badu, gainerako langileentzat Zuzendaritzak ezarritako protokolo bera jarraitu beharko du laguntzaileak. Gaixotasuna luzea bada, laguntzaileak jarraituko du hileroko laguntza jasotzen, betiere gure erkidegoan jarraitzen bada. Bere herrialdera itzultzen bada, hemendik kanpo igarotzen duen denborri dagozkion ordainsariak deskontatuko zaizkio.

Hizkuntza Laguntzaileek esleituta duten ikastetxearen eskola-oporrak izango dituzte, baita Euskal Autonomia Erkidegoko egun espezifikoak ere. Ikastetxeko zuzendaritzak beste baimen batzuk eman ahal izango ditu, aldi laburrak eta justifikatutako arrazoiengatik badira.

4) Uko egiteak eta Programa uzteak

Hizkuntza Laguntzaileak, bukatu aurretik programa uztea aurreikusten bada, berehala jakinarazi behar du E.A.E.ko arduradunen harreman-helbide honetan: hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus; Programa utziko duen data zehatza adierazita, arduradunek uko egiteari dagozkion izapideak egin ahal izateko.

5) Ikasturtearen Azken Balorapena

a) Ikastetxeak bete behar duena:

Ikasturtea bukatu aurretik Hezkuntza Saitetik, online bidaliko zaion balorazio inkesta bete beharko du. Eta, Hizkuntza Laguntzaileari egindako jarduerengatik ziurtagiri bat luzatuko dio.

b) Hizkuntza Laguntzaileak bete behar duena:

Ikasturtea bukatu aurretik Hezkuntza Saitetik, online bidaliko zaion balorazio inkesta bete beharko du. **Derrigorrezkoa** da inkesta betetzea.

6) Berritzeak

Laguntzaile bat programa batean berritzea ez da automatikoki egiten. Kontuan eduki behar da Hizkuntza Laguntzaileen programak hautagai berrien alde egiten duela eta berritzeko-programak aldatu egiten direla hautagaiaren jatorrizko herrialdearen arabera. Ezin da, beraz, bermatu eskabidea egiten duten pertsona guztiei berrituko zaiela. Berritze-prozesuari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, nazionalitatearen araberako jarraibide zehatzekin, alegia, kontsultatu:

[Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa](#)-ren web-orria.

Programan berritzeko eskabidea onartua izan ondoren eta laguntzaile bakoitzak esleitu zaion ikastetxearen berri izaten duenean, oso garrantzitsua da Espainian jarraitzeko baimena luzatzeko eskabiderako administrazioko izapideak gitea, hartarako ezarritako epe barruan.

7) Programaren hasieran egin beharreko izapideen laburpena:

Eskabidea egin, dagokion deialdiaren araberrako jarraibideak kontuan hartuta:

[Mintzapraktikako laguntzaile atzerritarrak Espainian](#)

Espainian egoteko baimena (bisa, pasaporte, ...); jatorrizko herrialdetik ekarriko da. Horretarako, mintzapraktikako laguntzailearen dagokien izendapena jasoko dute.

Zigor-aurrekarien ziurtagiria

Uztailaren 28ko 26/2015 Legean ezarritakoa betez, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatu zuena, Prozedura Zibilaren Legea eta Kode Zibila partzialki aldatzen dituen, 13 artikuluari 5. atal bat gehitzen diona, hizkuntza laguntzaileak ondoko hau Espainiara ekarri behar izango du eta lehen egunean heziketa-zentroan aurkeztu:

Ziurtagiri negatiboa, sexu delitugileen erregistroak edo bere herrialdeko zigor erregistroak igorritakoa, sexu-askatasun eta ukigabetasunaren kontrako delituren batengatik epai irmo baten bidez kondenatua ez izanarena.

Euskal Autonomia Erkidegora iritsitakoan **bizitoki iraunkorra aurkitzea** ezinbestekoa da administrazioko izapideekin hasi ahal izateko. Ikastetxeko tutorearen laguntza baliagarri izan daiteke.

Kasuan-kasuan dagokizun ATZERRITARREN IDENTIFIKAZIO-TXARTELA eskatu.

Esleitu zaizun ikastetxea kokatuta dagoen probintziako Atzerritarren bulegoan, edo, bestela, helbidea duen tokiko polizia-etxean eskatu behar duzu txartel hori, eta hitzordua eskatzen da esteka honen bidez: [Hitzordua eskatu](#)

Europar Batasuneko herrialdeetatik datozen laguntzaileak (Europako erkidegoko laguntzaileak)

Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria eskatu.

Europar Batasuneko estatu kide bateko laguntzaileak Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatzera behartuta daude. Erregistro horretan, Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) emango die eta identifikazio-txartel bat.

Estatu Batuetako, Kanadako, Australiako, Zeelanda Berriko, Filipinetako, Erresuma Batuko laguntzaileak, Espainiara laguntzaile gisa lehenbizikoz datozenak. (Europako Erkidegoz kanpokoak)

Atzerritarren Identifikazio-txartela (AIT) eskatu.

Euskal Autonomia Erkidegora iritsitakoan, laguntzaileak Atzerritarren Identifikazio-txartela (AIT) eskatu beharko du, non agertuko den atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ).

Estatu Batuetako, Kanadako, Australiako, Zeelanda Berriko, Filipinetako, Erresuma Batuko laguntzaileak, (Europako Erkidegoz kanpokoak) laguntzaile gisa berritzen dutenak.

Ikasketengatik egonaldi-baimena luzatzeko eskabidea egin.

Banku-kontu bat ireki AIZ zenbakiarekin.

8) Ohiko galderak

Ikastetxe batean baino gehiagotan egon daiteke?

Baliteke ikastetxea konpartitu behar izatea, hau da, bi lekutan egon behar izatea Hizkuntza Laguntzaile moduan. Kasu hauetan orduak adostu egingo dira ikastetxeen artean.

Zeintzuk dira gaixotasunagatiko absentzia kasuetarako arauak eta izapideak?

Edozein hutsegite dagoenean ikasteko zuzendaritzari azaldu beharko dizkio arrazoiak Hizkuntza Laguntzaileak eta justifikazioa aurkeztu lehen baitlehen. Hutsegiak zurriz ez badira, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Sailari emango dio horren berri, ordainketatik gutxitzeko zurriz gabeko hutsegiteak.

Gaixotasunagatik huts egiten badu, gainerako langileentzat Zuzendaritzak ezarritako protoko bere jarraitu beharko du laguntzaileak. Gaixotasuna luzea bada, laguntzaileak jarraituko du hileroko laguntza jasotzen, betiere gure erkidegoan jarraitzen badu. Bere herrialdera itzultzen bada, hemendik kanpo igarotzen duen denborri daogozkion ordainsariak deskontatuko zaizkio. Hizkuntza Laguntzaileek esleituta duten ikastetxearen eskola-oporrak izango dituzte, baita Euskal Autonomia Erkidegoko egun espezifikoak ere. Ikastetxeko zuzendaritzak beste baimen batzuk eman ahal izango ditu, aldi laburrak eta justifikatutako arrazoiengatik badira.

Zer arau eta izapide bete behar dira ikasketak, azterketak edo norberaren gauzak direla eta lanera joan ezean?

Absentzia oro ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaio ikastetxeko zuzendariari edo ikasketa-buruari. Zuzendariak absentzia baimenduko du, aurkezten den justifikazioaren arabera. Absentzia ez da justifikatutzat joko, zuzendaritzaren berariazko baimena aurretik lortu ez bada.

Argitu nahi ditugu Hizkuntza-Laguntzaileek EZ dutela norberaren gauzetarako egunik.

Salbuespenezko arrazoiaren batengatik baimena eskatzen badute (azterketak, familia-larrialdiak, etab.), ikastetxeko zuzendaritzak baimena ematea edo ez ematea erabakiko du, eta orduak errekonpentsatzearekin konpentsatzea. Dena den ikastetxeak erabaki hori har dezake baimena astebete baino gehiagokoa ez bada.

Hizkuntza-Laguntzaileak astebetetik gorako baimena eskatzen badu, ikastetxeak baimena emateko eskatu beharko die kudeatzaileei (autonomia-erkidegoei edo ministerioari). Arduradunek kontuan hartuko dituzte arrazoiak, Hizkuntza-Laguntzailearen egoera eta eskatutako denbora, erabakia hartzeko.

Nolanahi ere, eta zentroari ematen zaizkion zerbitzuak murriztea saihesteko, laguntzaileak Zuzendaritzarekin adostu behar du galdutako eskolak nola berreskuratu. Era berean, absentzia justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Arau horiek betetzen ez badira, hileko laguntzari dagokion zatia eten edo deskontatu ahal izango da.

Zein da hileroko laguntzaren zenbatekoa?

800 eurokoa da ikasturtean Hizkuntza Laguntzaileentzat finkatu den hileroko ordainketa.

Zein dira Hizkuntza Laguntzaileen zerga-betebeharrak?

Hizkuntza-Laguntzaileek dirulaguntza bat jasotzen dute, ez atxikipen fiskalei lotutako soldata bat, ezta lan-errenta bat ere. Nolanahi ere, hautatutako hautagaiek egunean izan behar dituzte, hala badagokio, zerga-betebeharrak eta Espainiako legeriatik erator daitekeen beste edozein betebeharrak.

Ikastetxerekiko arazoan edo edozein gorabeheraren kasuan, zein da jarraitu beharreko prozedura?

Edozein arazo edo gorabehera irakasle-tutorearekin aztertuko da lehenik eta behin. Behar bezalako erantzunik jaso ezean, departamentuko buruari jakinaraziko zaio eta, beharrezkoa bada, zuzendariari. Kontsulta horien ondoren gorabehera konpondu gabe badago, programaren koordinatzaileari jakinarazi beharko zaio destinoko autonomia-erkidegoko Hezkuntza Sailean edo Sailean eta, azken buruan, programaren arduradunei Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan.

Hizkuntza-Laguntzailearen zerbitzuak alde batera utz daitezke?

Bai. Justifikatutako arrazoiren batengatik, eta programaren kudeaketaz arduratzen diren erakunde eta instituzio guztiak ados jarri ondoren, laguntzaile baten zerbitzuak alde batera uztea erabakitzen bada, idatziz jakinaraziko zaio, gutxienez bi aste lehenago.

9) Helbide erabilgarriak

Hezkuntza Saila

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

[Hizkuntza Laguntzaileak Euskal Herrian - Informazioa](#)

hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa

Hezkuntzaren Kanpo Sustapenerako Unitatea

Paseo del Prado, 28

28014 Madrid

<https://www.educacionyfp.gob.es/mc/accion-externo/inicio.html>

Atzerritarrek dokumentazioa tramitatzeko Bulegoak Euskal Herrian.

[Gobernuaren Ordezkaritzak Euskal Herrian - Atzerritartasuna](#)

[Atzerritarrentzako dokumentazio-izapideei buruzko informazioa – Polizia Bulegoak](#)

<p style="text-align: center;">ARABA</p> <p>Oficina de Extranjería en Vitoria/Gasteiz Helbidea: C/ Oñate s/nº - 01013 Vitoria/Gasteiz Telefono: 945209642 Fax: 945209618 Izapideak: Autorizaciones de Regreso Certificados y asignación de NIE Expedición de TIE Informes de Nacionalidad Prórrogas de estancia</p>	<p style="text-align: center;">BIZKAIA</p> <p>Oficina de Extranjería en Bilbao Helbidea: C/ Gordoniz nº 8 - 48015 Bilbao Telefono: 944709151 / 944709149 / 944709159 Fax: 944709100 Izapideak: Autorizaciones de Regreso Certificados y asignación de NIE Expedición de TIE Informes de Nacionalidad Prórrogas de estancia</p>
<p style="text-align: center;">GIPUZKOA</p> <p>Oficina de Extranjería en Donostia/San Sebastián. Helbidea: Urumea Pasealekua, 17 20014 Donostia/San Sebastián Telefono: 943449800 Fax: 943449797 Izapideak: Autorizaciones de Regreso Certificados y asignación de NIE Expedición de TIE Informes de Nacionalidad Prórrogas de estancia</p>	<p style="text-align: center;">GIPUZKOA</p> <p>Comisaría Local de Irún Helbidea: Plaza del Ensanche nº 2 – 20300 Irún Telefono: 943639533 Fax: 943639495 Izapideak: Autorizaciones de Regreso Certificados y asignación de NIE Expedición de TIE Informes de Nacionalidad</p>

GARRANTZITSUA:

Gomendatzen da kontaktatzea dagokion bulegorekin; jakiteko beharrezkoa den ala ez Ordua Eskatzea eta ziurtatzeko haiekin zein dokumentazio beharrezkoa den. (pasaportea + Izendapena + EX17, EX18 edo EX00en bi ale (dagokiona) + prozedurako tasa ordaindu izanaren egiaztatzea + Argazkia + ...)